

Akusatuak ez dira libratu

Santa Ana eguneko ospakizunen ohiko formatua berreskuratu dute antolatzaileek, eta gozatu ederra hartu herritarrek / 6-7

TXINTXARRI

Uzta digital emankorra

Aurtengo ikasturteko datuak oso onak izan dira TXINTXARRI-ren webgunean, iazkoetatik oso gertu / 2-3

Kris Alvarez Altuna
herritarrek C2
euskara maila atera
du aurtan; bizitakoa
kontatu du / 4

Donostia Arraun
Lagunak-ek
Euskadiko
Txapelketa irabazi
du, Lekeition / 10

ELECTRICIDAD
ARREGUI



Goza ezazu udaraz!

**DORRE
HAIZAGAILUA**
Ikusezina,
eraginkorra eta
soinu gabekoa



**SABAICO
LANPARA HAIZAGAILU**

**PLANTXA GRILL
ELEKTRIKOA**



**Abuztuan
zabalik
08:00
15:00**




KLIMATIZAGAILU

600 85 75 86


www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)




Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Amaitzean den ikasturteko datuek erakusten dutenez, azken urteetako hazkundea egonkoru egin da gure atari digitalean. TXINTXARRI



Aurtengo ekainean izan ditugu bisita gehien gure webgunean. TXINTXARRI



Artikulu, argazki galeria eta bideoak ekoizten ditugu sarerako. TXINTXARRI

Iazko enbatari eutsi diogu

TXINTXARRI aldizkariaren atari digitaleko datuak oso onak izan dira 2021-2022 ikasturtean ere. Hilaren 28ra arteko datuak eskuetan, 48.671 erabiltzailek 284.434 orrialde bisitatu dituzte, 121.832 saio hasita. Eduki ikusiena sanpedroetako kontzertuei buruzko albisteak izan da

Txintxarri

Udako oporrak poz-pez hartuko ditugu etzi, hilak 31, eta ez soilik atsedena hartu eta pilak kargatuko ditugulako: www.txintxarri.eus atari digitaleko datuei erreparatu diegu, ikasturte osokoei, eta ikusi dugu iazko hazkundea egonkortzea lortu dugula (2020-2021 kurtsokoak izan dira orain arteko datu onenak). Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Adierazle gehienetan oso gertu geratu gara, eta baten batean goitik gaude, erabiltzaileek hasi dituzten saioetan, adibidez: 121.832 izan dira aurten (hilaren 28ra arteko datuak eskuetan), eta 120.797 iaz. Saio horiek guztiak 48.471 erabiltzailek hasi dituzte (iaz 49.463 izan ziren), eta orotara 284.434 orrialde bisitatu (2020-2021ean, 294.609).

Jarraitu aurretik, ohi bezala, TXINTXARRI aldizkariako lantaldea

osatzen dugun guztiok eskerrak eman nahi dizkizuegu, irakurleok, zuei esker egin baitugu erreportaje hau horren gustura. Abuztuaren atsedena hartu eta gero, lan eta lan jarraituko dugu, Lasarte-Orian gertatzen denaren berri izaten jarrai dezazuen, euskaraz eta gertutik, 1993ko urritik ari garen bezala.

Sarerako sortu ditugun eduki kopuruari erreparatuta, nabaria da dezenteko eragina izan duela herrian oso errotuta dauden jarduerak, jai eta ekimen ugari beti bezala ospatu izana: San Pedro Jaiak, Zabaleta auzoko

IAZ BAINO ARGAZKI GALERIA ETA BIDEO GEHIAGO EGIN DITUGU, EKITALDI UGARI ITZULI IZANAREN ERAGINEZ

festak, 22. Korrika, inauteriak, kultur eta kirol eragileen erakustaldiak nahiz emanaldiak, eta abar. Iaz baino argazki galeria gehiago egin eta bideo gehiago grabatu ditugu, esan bezala, kalera aurreko bi urteetan baino gehiago ateratzen ari garelako: 259 eta 219 izan dira hurrenez hurren; iaz, berriz, 222 eta 139. Horrekin batera, esan behar da artikulu gutxiago idatzi ditugula, 1.289 (pasa den kurtsotan, 1.359).

Horren harira, ez da kasualitatea bisita gehien aurtengo ekainean erregistratu izana. Zabaletako festak, sanpedroen eta Sorgin Jaiak itzulera ez ezik, irailtik ordura arte landutakoa erakusteko garaia izan ohi da elkarreentzat, eta jaietarako motorrak berotzekoa. Horren adibide, San Joan sua. Hilabete horretan 41.028 orrialde bistaratu dituzte erabiltzaileek; gertu geratu da

martxoan, 35.213 bisitarekin, eta baita amaitzean den hilabetea ere, uztaila, 32.592rekin (lehen aipatu dugun bezala, atera ditugun datuak 28ra artekoak izan dira, aldizkaria inprentara bidali dugun egunera artekoak, hain zuzen).

Mugarria, 2019-2020 kurtsora

Google Analytics tresnaren bitartez neurtzen ditugu gure atari digitaleko datuak. 2016-2017 ikasturtean hasi ginen. Orduko datuak eta aurtengoak alderatuz gero, ondorioztatu dugu gorakada nabarmena izan dutela tarte horretan, 2020-2021 kurtsora arte batez ere, eta egonkoru egin direla aurten. Ezkerreko grafikoari so eginez gero, kurtsoko kurtsoko datuek izan duten bilakaera erakusten duenari, ikus daiteke 2019-2020 ekitaldia izan zela mugarririk, orduan eman gurela jauzi adierazgarria:

2016-2017 KURTSOTIK HONA, JAUZI NABARMENA EMAN DUGU: ZIFRAK ASKOZ HOBEAK DIRA

%91 erabiltzaile, %89 saio eta %88 bisita gehiago, 2016-2017aren aldean. Zenbat eta gorago igo, orduan eta kaskarreko handiagoa jaistean, hala dio esakerak, baina ez da hori gure kasua, 2020-2021eko zenbakiak are hobekiago izan zirelako (orduan jo genuen goia), eta aurtengoak ere bai, iazkoetatik oso-oso gertu.

Eduki ikusienak

Ezustekorik ezean (gerta daitekeelako hilaren 29tik 31ra argitaratuko dugun edukiren batek bisita gehiago izatea), aurtengo artikulu ikusiena izango da udal ordezkariak sanpedroetako kontzertuak nortzuk emango zituzten iragarri zutenekoa, 1.163 ikustaldirekin. Ikusmin handia piztu du baita ere herritar talde batek Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboa sortu izanak (1.100 bisita), eta sanpedroetako haurren txupinazoak (918). Zerrendan daude 22. Korrikaren kronika, Zabaleta auzoko festak egitaraua, Korrika Txikia bideoz grabatu izana eta Arrapide pasealekua erabiltzeko araudia, besteak beste.

Ikasturteko hamar eduki ikusienak



Alonso eta Valdivia. TXINTXARRI

1. Sanpedroetan Okendo eta Isla plazetan joko duten musika taldeak ezagutarazi ditu udalak. 1.163 IKUSTALDI
Udal ordezkariak aurtengo San Pedro Jaietan ariko ziren musika taldeak nortzuk izango ziren iragarri zuten: Zea Mays, El Drogas, Skakeitan, Kinada...



Kolektiboko zenbait kide. TXINTXARRI

2. Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboa eratu dute. 1.100 IKUSTALDI
LGBTIQ+ kolektiboa osatzen duten pertsonen borroka gure herrian ikusarazteko asmoz, eragile bat eratu du herritar talde batek. Sanpedroetan manifestazio jendetsu bat egin zuten.



Haurren txupinazoa. TXINTXARRI

3. Txispun! Hasi dira San Pedro Jaiak! 918 IKUSTALDI
Hiru urte eta gero, herritarrek izugarriko gogoia zuten San Pedro Jaiak beti bezala ospatzeko. Haurren txupinazoari buruzko kronikak ikusmin izugarria sortu zuten irakurleen artean, baita argazki eta bideoek ere.



Pailazoak, lekukoa eramaten. TXINTXARRI

4. Inoizkoa izan da; ederra, hunkigarria eta sudurgorria! 815 IKUSTALDI
Jarduera kuttun askoren itzuleraren urtea izaten ari da 2022a. Ekimen horietako bat 22. Korrika izan da, apirilaren 8an herria zeharkatu zuena. Pirritx, Porrotx eta Marimotots omendu zituen AEK-k.



San Fermin ospatzen. TXINTXARRI

5. Gora San Fermin! 565 IKUSTALDI
Udako Txokoak eta Udalekuak antolatu ditu aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak; hilabete amaierara arte, hamaika abenturaz gozaten ari dira haur eta gaztetxoak. Hilaren 7an San Fermin Eguna ospatu zuten, Okendo plazan.



Teresa sorgina, auzora iristen. TXINTXARRI

6. Aurten bai, Teresa sorgina herrira jaitsiko da. 564 IKUSTALDI
Zabaleta auzoko jaien atarian, egitarauaren berri ematen zuen albiste bat prestatu genuen, herritarrek programaren berri izan zezaten. Teresa sorginaren jaitsiera izan zen ekaineko lehen asteburuko jardueretako bat.



Ikasleak, lasterka. TXINTXARRI

7. Korrika Txikia bidez grabatu dugu. 533 IKUSTALDI
Herriko ikastetxeetako ikasleek Korrika Txikia egin zuten herriko kaleetan barrena. Muntteri AEKren furgonetara igo, eta ibilbidea bidez grabatu genuen. Okendo plaza izan zen irteera gune eta helmuga.



Harrera ekitaldiko une bat. TXINTXARRI

8. Egoerara moldatutako jarduera ugari prestatu ditu Ttakun KEK Eguberrietarako. 514 IKUSTALDI
Iazko abenduan, urtero bezala, herritarrek harrera egin zieten Olentzero, Mari Domingi eta lagunei. Hori bai, COVID-19ak eragindako egoerara moldatuta.



Arrapide pasealekua. TXINTXARRI

9. Arrapide pasealekua erabiltzeko araudia. 477 IKUSTALDI
Landaberri ikastolara doazen autobusak beste ibilgailu batzuekin gurutzatzerakoan sortu ohi diren arazoak saihesteko, trafiko araudi berria ezarri zuten iragan urteko urriaren 4an.



Buruntza, gurutzerik gabe. TXINTXARRI

10. Islada Ezkutatuak taldeak oharra argitaratu du, Buruntza mendiko gurutzea eraitsi izanaren harira. 446 IKUSTALDI
Memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari den Islada Ezkutatuak taldeak oharra bidali zuen gure erredakziora, Buruntzako gurutzea bota izanaren harira.

OHARRA: Google Analytics ataritik atera ditugun datu hauek hilaren 28ra artekoak dira, ikasturteko azken zenbakia inprentara bidali genuen egunera artekoak. Baliteke zerrenda honetan aldaketarik egotea. Grafiko eguneratu guztiak www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta ditzakezue. Abuztuaren 1ean gaurkotuko ditugu, uztail osoko datuak ere jaso ditzaten.

EUSKARALDIA
HITZETZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

sentitu, prestatu ... eta ekin!

**Entitateen txanda da!
Izen-ematea zabalik**

IZEN-EMATEA

<https://ariguneak.euskaraldia.eus/>

Udan eman zaitez kapritxo bat!

zerbitzu mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Abuztuan zabalik
goiz eta arratsaldetan

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoak
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulstarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria

"Betidanik gustatu izan zait euskara ikastea"

KRIS ALVAREZ ALTUNA EUSKARA IKASLEA

Muntteri AEK euskaltegian C2 euskara maila eskuratzeko ikastaroa egin duen pertsonetako bat izan da lasarteoriatarra. Lan "asko" egin arren, "oso gustura" aritu dela azpimarratu du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ezohikoa da Muntteri AEK euskaltegia eta inguruak horren lasai ikusteak. Irakasle eta ikasleek merezitako oporrak hartu dituzte, ikasturte luze baten ostean indarrak hartzeko. Bertan aritu da Kris Alvarez Altuna herritarra irailetik ekainera, lan eta lan, inurrien pare, C2 euskara maila edo erabiltzaile adituarena eskuratzeko asmoz. Azken emaitza, mintzamen probarena, duela egun batzuk jaso zuen, oportetean zegoela: gai. Gainerako alor guztiak ere gaituta, bete du helburua: maila hobetzea, euskaraz aritzeko tresna gehiago eskuratzeko. Harekin elkartu da TXINTXARRI, bere esperientziaz jarduteko.

Zerk bultzatu zintuen C2 euskara maila eskuratzeko ikastaroan izena ematera?

Euskaraz hitz egiteko eta idazteko baliabide gehiago lortu nahi nituen, nire maila hobetu eta aberastu. Betidanik gustatu izan zait euskara ikastea, titulua bera



Kris Alvarez Altuna, Muntteri AEK euskaltegiaren atarian. TXINTXARRI

ez zen premiazkoena niretzat. Hori bai, behin ikasten hasita, argi nuen eskuratu nahi nuela. **Lau trebetasun proba egin behar izan dituzu C2 mailan: irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamina. Zer moduz moldatu zara?**

Gustura landu ditut guztiak, baina exigenteak izan dira, idazmena batez ere. Ikasturte hasieratik hona hobetu dut hitzez adierazteko modua, eta balio izan dit hartuta nituen zenbait mania kentzeko. Kurtsoan zehar, oro har, lasai

aritu naiz, azterketen aurretik urduri jarri arren. Idazmen probaren aurretik, esate baterako, behin bertan izanda, asko harritu ninduen horrenbeste jende ikusteak.

C2 mailan aditu rol batetik aritzeko eskatzen zaio ikasleari, prestatzeko idatzizko testuak eta ahozko azalpenak, idazmen eta mintzamen probak prestatze aldera. Eroso sentitu zara? Zein gai landu duzu? Askotan erabiltzen nituen *nire ustez, nire iritziz* eta antzeko esamoldeak, eta irakasleak, Iñaki Dorronsorok, behin eta berriro errepikatzen zidan ziurtasunez aritu behar nuela, aditu bat izango banintz bezala. Kosta zitzaidan hasieran, baina hartu nuen martxa gero.

Irakaslea naiz ni ogibidez, eta erabaki nuen jorratzea jolasguneak nolakoak diren genero ikuspegitik, eta horiek nola eraldatu, inklusiboagoak izan daitezken. Lehendik landua nuen, baina C2 maila prestatu bitartean sakontzeko aprobetxatu dut.

Muntteri AEK euskaltegian egin duzu ikastaroa. Eskolak izan dituzu astero, ala autoikaskuntza egitea aukeratu duzu?

Aurten C2 maila prestatuko nuela erabaki nuenean, euskaltegiko kideekin jarri nintzen harremanetan. Lasarte-Orian talde bat ateratzeko adina ikasle izango ginela baieztatu zidatenean, eskolak hartzea erabaki nuen, lanagatik-eta ondo etortzen zitzaidalako. Astero

bost ordu izan dira, bi ordu eta erdiko saio bana. Lan asko egin dugu denok eta exigentea izan da, baina oso-oso gustura aritu naiz, eta uste dut asko lagundu didala taldekide eta irakaslearekin horren giro ona izateak. Nabarmendu nahi nuke Iñakiren lana, ikasketa prozesua oso atsegin egin duelako, hizkuntzarekin jolasteko ariketak ekarri dizkigulako, anekdotak kontatu, hitzen jatorriari buruzko istorioak partekatu... Gozagarria izan da hori guztia.

Ikasturtea hasi aurretik, esan ziguten zaila dela C2 maila eta normalean hiru ikasletik batek (%33) gaituzten duela. Ez da kasualitatea gure taldeak portzentaje hori bikoiztu izana. **Esan duzu taldean giro ona izan duzuela. Euskara maila hobetzeaz gain, euskaltegi batean herrikideekin aritzea elkar ezagutzeko eta harremana estutzeko baliagarria ere izan daiteke?**

Bai. Taldekide izan ditudanak ezagutzen nituen lehendik, bistaz, herrian ikusi izanagatik, eta giro polita sortu dugula uste dut. Euskara ikastea buruan dutenei euskaltegira joatea gomendatzen diet.

"ASKO LAGUNDU DIT TALDEKIDE ETA IRAKASLEAREKIN HORREN GIRO ONA IZATEAK"

Isabel Huesok, 100 urte

Isabel Hueso herritarra 100 urte bete ditu berriki, eta ederki ospatu ere bai, senideez inguratuta. Horrez gain, lore sorta bat oparitu dio Lasarte-Oriako Udalak. Salamancan jaio zen Hueso, El Saugo herrian. 1968an Usurbilera etorri zen bizitzera, eta sei urte geroago, gure herrira. Iaz arte, alabekin bizi zen, eta Atsobakarreko egoiliarra da egun.



Suizidioaren tabuari buruz gogoeta egiteko antzezlan

Barsati antzerki konpainiak 'Akabo!' tragikomedia lanaren emanaldia egin du, Okendo plazan

Txintxarri

Barsati antzerki konpainiak *Akabo!* tragikomediaren emanaldia egin zuen Okendo plazan, hilaren 22an. *Jump!* izeneko ikuskizun bat hastear zela, langile bat agertu zen

udaletzeko banderak garbitu ahal izateko jaso egin behar zituela azalduz. Zuzendariarekin eztabaidatu, eta bere arduradunarekin hitz egiten zuen bitartean, beharginak bere zereginari ekin zion. Barruko

ahotsak iseka egin zion eta zakar mintzatu zitzaion, gaizki egindako guztia gogoraraziz, eta konbentzitu egin zuen bere buruaz beste eginez gero dena konponduko dela esanez. Eta hala, salto egin zuen. Suizidioaren tabuaren inguruan gogoetarako zertzeladak eman zizkien ikusleei obrak.

Hilabeteko azken emanaldia gaur izango da, hilak 29, Okendon bertan, 19:00etan. Ganso&Cia konpainiak *Panoli Kabareta* lana ekarriko du herrira.



Barsati konpainiako aktoreak, 'Akabo!' antzeztzen, Okendo plazan. TXINTXARRI



Parte hartu zuten herritarrak Okendo plazatik irten ziren. TXINTXARRI

Kilometroak egin dituzte bizikletan, euskal presoen alde

Bizikleta Itzulia bosgarrenez egin du Sare Herritarrak, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan

Txintxarri

2018tik urtero egin bezala, Sarek bizikleta itzulia egin du hilabete amaieran. *Etxera bidea gertu* lelopean egindako ekintzan, pedalkadaz pedalkada hedatu dute salbuespeneko espetxe-politikaren amaiera eskatzeko aldarria Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Etxarritik irten eta Durangora iritsi zen hilaren 22an, handik Azpeitira joan ziren hurrengo egunean, eta Gipuzkoan barrena egin zuen goizean Donostiara bidea hilaren 24an, igandearekin.

Hogei bat lasarteoriatarrek bat egin zuten ekintzarekin. 11:00etan elkartu ziren Tiburtzio Artizar taberna aurrean, elkargune zuten Okendo plazan Santa Ana egunaren harira jarritako artisau azoka baitzegoen. Hilaren 23an Baionan izan ziren hamabost bat lagun, espetxean 32 urte

daramatzaten Jakes Esnal eta Ion Parot aska ditzaten eskatzeko. Ipar Euskal Herria blokeatzeko egindako mobilizazioan parte hartu zuten, eta han gertatutakoen berri eman zien Joxe Mari Agirretxek. Jarraian, ibilbideari buruzko azalpen batzuk eman, eta datozen hilabeteetarako prestatu dituzten jarduerak ere gogorarazi zizkien: Donostiako Aste Nagusiaren barruan, abuztuaren 20an, larunbata, egingo duten manifestazioa, eta Izan Bidea dinamikaren amaiera izango den urriaren 8ko mobilizazioa.

Horiek esanda, talde argazkia atera eta Sagardotegi kaletik irten ziren Hipodromo hiribidera. Hiriburura bidean, eskualdeko beste txirrindulari batzuk batu zitzaizkien. Donostiara iritsi, eta itxiera ekitaldian parte hartu zuten.

Hipodromoko lasterketetarako gonbidapen bikoitzen zozketa



Zorte hutsa



Eskaneatu QR kode hau edo sartu www.aterpea.es/sarrerak.html webgunean eta promozioaren oinarriak kontsultatu

uztaila
03 · 10 · 16 · 24 · 31

abuztua
07 · 15* · 21 · 28

iraila
04 · 09

* Promozio hau lasterketetako jardunaldi guztietarako baliagarria da Abuztuaren 15ekoa izan ezik (Urrezko Kopa)



Santa Ana, beti bezala berriro ere

Festa giroa, egun osoan

Urteak eta parodiak badoaz, baina epaileen aurrean esertzen diren akusatuen patua ez da aldatzen: sutan kiskali zituzten Josune Jone Prezioandia Oktanogutxik eta Iberrolas Prezioandia Peromuygalan akusatuak, basajaunek hala erabakita, hilaren 26an, Santa Ana egunean. Okendo plazako oholiza gainera igo diren testigu bitxiak eskainitako lekukotza are bitxiagoek eragin dute hori. Antzezlana hasi aurretik, antolatzaileek Dinbi Banda batukada taldea omendu dute, aurten hamar urte bete dituelako. Bertako kideek iragarri dute irailaren 24an ospatuko dutela, egun osoko egitarau batekin. Parodiaren aurretik, makina bat jardueratan parte hartu zuten herritarrek: meza, hamaiketakoa, Santa Ana karkabako dantzaldia, pala txapelketa eta aktoreen desfilea izan ziren ekimenak. Jon Pello eta Iker Artetxe anaiek jantzi zituzten txapelak, Arteaga lehengusuei 30-11 irabazita. Bi egun lehenago, motorrak berotzeko, artisauen azoka egin zuten Okendon bertan, eta lasarteoriatar ugarik egin zituzten erosketak han.



Hilaren 24an egin zuten artisauen azoka, Okendo plaza inguruan. Lasarteoriatar ugarik egin zituzten erosketak han. TXINTXARRI



Ohiturari jarraituz, hilaren 26ko eguerdiko hamabietan Santa Ana karkaban dantzatu zuten Erketz EDTko kideek. TXINTXARRI



Parodiako aktoreak, musikariak eta suhiltzaileak Jalgi kafe antzokian elkartu ziren, eta



Goian, herritarrek mezatik irteten. Behean, hamaiketako legea egiten. TXINTXARRI



erdigunean barrena egin zuten desfilearen aurretik argazkia atera. TXINTXARRI



Desfilean parte hartu zuten lagunek Kale Nagusia zeharkatu zuten. Hainbat herritar zituzten zain bertan. TXINTXARRI




Sei bikote aritu dira Santa Ana pala txapelketan; Artetxe anaiak izan dira txapeldun. TXINTXARRI



Hamar urte bete dituela-eta, Dinbi Banda batukada taldea omendu dute aurten parodiaren antolatzaileek. TXINTXARRI



Okendo plaza ikus-entzulez lepo bete zen. Antolatzaileek ordua aurreratzea erabaki izana ez zen horretarako oztopo izan. TXINTXARRI



DOMINOAN Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.



Elementu hauetatik guztietatik bat zortzi aldiz ageri da eta beste elementu bat soilik behin. Zein dira? Eta zenbat lanperna daude?

Itsaski Festa



Hemen buru bakoitzak zorri bana du eta hizketan ari dira, baina zer diote? Erabili hizki-marrazki alfabetoa eta erraz ulertuko duzu.

Zorri Hiztunak

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D
E	F	G	H
I	J	K	L
M	N	O	P
Q	R	S	T
U	V	W	X
Y	Z	.	-
,	!	?	:


Itzala

Hondarretan gazteluak egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?



Badonk 13

Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmokak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste samar dago eta.





Donostia Arraun Lagunak taldeko kideak banderarekin. Aiora Belartietia lurrean eserita dagoen eskuineko lehena da. DONOSTIA ARRAUN

Herritarrak, Euskadiko txapelketako podiumean

Aiora Belartietia kide duen Donostia Arraun Lagunak Lekeition lehiatu den Euskadiko Txapelketan garaile izan da. Intza Fernandez eta Hondarribia Bertako Igogailuak taldeko kideak lehiaketako hirugarren postuan sailkatu dira

Txintxarri

Lekeitioko uretan erabaki ziren aurtengo traineru modalitateko Euskadiko txapelkunak, hilaren 25ean. Donostia Arraun Lagunak izan zen irabazlea emakumezkoen lehiari. Aiora Belartietia herritarra eta bere eskifaia kideak nagusi izan ziren proban. Ez zen domina jantzi zuen herritar bakarra izan. Intza Fernandez eta Hondarribia Bertako Igogailuak

podiumeko hirugarren mailara igo ziren brontzezko saria jasotzeko.

Donostia Arraun Lagunak, Hondarribia Bertako Igogailuak, Hibaika eta Donostiarra izan ziren lehen txandan parte hartu zuten lau ontziak.

Lugañenek bigarren kalean egin zuen arraun; Ama Guadalupekorri, berriz, lehen kalea egokitu zitzaion zozketan.

Donostiarrek hasieratik jarri ziren buruan; zibogean Hondarribiarekiko hamar segundoko aldea zuten. Bigarren luzean hegan joango balira bezala ihes egin zuten donostiarrek eta 11.20,88 marka egin zuten helmugan. Berdeek, berriz, ia 22 segundo gehiago behar izan zituzten azken marrara iristeko.

Lehen eta bigarren ziren herritarren ontziak; bigarren

Maialen Chourraut Munduko Txapelketan lehiatu da

Sorbaldako ebakuntza izan ostean, lehen lehiaketa du lasarteoriatarrek. Taldean zein bakarka parte hartuko du

Txintxarri

Duela urtebete, uztailean 27an, zehazki, Maialen Chourraut herritarrak balentria ederra egin zuen Tokioko Olinpiar Jokoetan, zilarrezko domina eskuratu zuen. Aurten, berriz, egun horretan bertan, lehiaketara itzuli da. Otsailean sorbaldeko ebakuntza izan zuen herritarrak eta geroztik, pausoz pauso joan da Augsburg-en, Alemanian, antolatatu den Munduko Txapelketa prestatu eta lehiatzeko asmoz.

Horretarako, bi astez izan da Alemaniako herriko Eiskanalean lanean.

Lasarteoriatarra taldekako zein bakarkako probetan arituko da Munduko Txapelketan eta bi modalitatetan parte hartu du: eslalom eta eslalom extreme.

Hilaren 27an, Chourrautek hitzordu garrantzitsuan izan zuen lehen proba kayakeko eslalomeko taldekako lehia izan zen. Laia Sorribes-ekin eta Julia Cuchi-rekin osatu zuen Espainia



Maialen Chourraut, taldekako lehiaketako momentu batean. BAT BASQUE TEAM

taldeko hirukoa. Bidean hiru ate –laugarren, hamabigarren eta hamazazpigarrena– ukitu zituzten eta sei puntuko zigorra izan zuten. Ondorioz, 116.35eko denbora egin eta seigarren postuan sailkatu ziren.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

PIRAGUISMOA

MUNDUKO TXAPELKETA

Maialen Chourraut herritarra eslalom modalitateko munduko txapelketan lehiatu da.

Hilaren 30a eta 31. Augsburg, Alemanian.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Donostia Arraun Lagunak-ek Getxoko Estropaden XIV Ikurriña - J.A. Agirre lehendakariaren XVIII. Omenaldia eta XI. Euskotren Bandera lehiatuko ditu.

Hilaren 30a eta 31. Getxo eta Lekeitio, Bizkaian.

ETE LIGA

Hondarribia Bertako Igogailuak-ek Camargoko Udalaren Emakumezkoen II. Bandera lehiatuko du.

Larunbata 30. 18:30. Camargo, Kantabrian.

KAE2

Hibaika Susperregi Edukiontzia Real Astillero de Guarnizo XVIII. Banderan parte hartuko du.

Larunbata 30. 16:00. Astillero, Kantabrian.

LASTERKETAK

LOIOLAKO KROSA

Hainbat herritarrek Loiola auzoko Jaietako Krosean parte hartuko dute.

Igandea 31. 10:00. Loiola auzoa, Donostian.

AMARAKO KROSSA

XI. Amarako Herri Krossa lehiatuko da.

Igandea 31. 11:00. Amara auzoa, Donostian.

ZALDIAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko zortzigarren jardunaldia jokatu da. Sari nagusia Diario Vasco izango da.

Igandea 31. 17:30. Hipodromo, Donostian.

txanda geratzen zen, ordea. Orio Orialki, Tolosaldea, Ondarroa eta Deusto Bilbao ziren lehiakideak.

Laugarren kalean nagusi izan ziren mirotzak eta zibogean Hondarribiak baino bost segundo gehiago behar arren, bigarren luzean erritmoa bizkortu eta 11.38,24 egin zuten helmugan. Beraz, Ama Guadalupekoa aurreratu zuen sailkapenean eta podiumeko bigarren maila eskuratu zuten oriotarrek.

Hirugarren Erreterian

Bi egun lehenago, berriz, Hondarribia Bertako Igogailuak taldeak Emakumeen Traineru Elkarte (ETE) ligako jardunaldia izan zuen Erreterian; hirugarren postua eskuratu zuten berdeek.

Hibaika eta Deusto Bilbo ontziek aurrea hartu zuten hasieratik. Hondarribiak, berriz, Delteco Zumaiarekin lehia handia izan zuen lehen luzean; zibogean denbora berdina egin zuten (04.24). Bigarren, berriz, zumaiarrek atzean utzi zituen Ama Guadalupekoa eta 11.12,01 denborarekin hirugarren izan zen. Postuari esker, sailkapen nagusiko lehen postuan mantendu da Hondarribia Hibaikarekin batera, puntuetan berdinduta, bakoitzak 64.

Kantabrikoko Arraun Elkarte (KAE) 2. mailako ligan Pasaiaiko bandera lehiatu zen. Gaizka Ormazabal herritarra kide duen Hibaika Susperregi Edukiontzia bosgarren sailkatu zen (21.35,01). Sailkapen orokorrean, berriz, hirugarren mantentzen da.

Bakarkako sailkatze probetan Chourraut ez zen lehen postuetan izan; lehen 30 ontziak finalerdian egongo zirenen jakitun, bere nabigazioa finkatzen eta hobetzen saiatu zen.

Lehen jaitsiera akatsik gabea izan arren, 105.77 behar izan zuen ibilbidea egiteko eta 24. postuan sailkatu zen. Bigarren saikeran, denbora hobetu zuen (102.17), baina hogeigarren atea ukitu eta bi puntuko zigorra jaso zuen. Hala ere, hilaren 30ean jokatu den finalerdiko txartela lortu zuen txandako bederatzigarren postua eskuratu. Dena ondo bidean, finalean ere parte har dezake.

Ez du hori azken erronka izango herritarrak, hilaren 31n, arratsaldean, extremeko probari egingo baitio aurre.

LASARTE-ORIA

GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena,
herrian bertan!



Elektrizitatea



Iturgintza



Kristaldegi eta leihoak

ELECTRICIDAD
ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

ILLARRETA
ITURGINTZA
IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 606 686 615 eta 943-36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigaraga
info@illarreta.com



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37-17 33 • 610 45 93 45
www.cristalerialanorgatxiki.com



30. urteurrena

ISU

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ **943-36 64 95**
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA

Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



Barne-Diseinua



Igeltseritza

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan
azaldu nahi baduzu
jar zaitez gurekin
harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:

943 37-14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus

Dominak eta markak, Espainiako txapelketan

Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin ahizpek Absolutu mailako zein Absolutu gazte mailako dominak jantzi dituzte hainbat probatan. Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria juniorrak, berriz, bere marka pertsonala ondu du 100 m. libre proban

Txintxarri

Absolutu eta Junior mailako igeriketako Espainiako txapelketa amaitu da. Lasarte-Oriako igerilariak bikain lehiatu dira domina eta marka berriak eskuratuz.

Bidasoa XXIeko Ainhoa eta Leire Martin hainbat probetako A zein B finaletarako sailkatu ziren. Ainhoa, esate baterako, absolutu zein absolutu gazte mailako podiumetara igo zen. 400 m. lau estilo proban A finalean aritu zen eta absolutu mailako zilarrezko domina zein absolutu gazte mailako urrea jantzi zituen. 200 m. lau estilo (A finala) eta 100 m. bular (B finala) probetan absolutu gazte mailako bigarren postua eskuratu zuen eta 50 m. (B finala) eta 200 m. bularreko (A finala) lehian, berriz, absolutu gazte mailako hirugarren izan zen. Azken proba horretan absolutu mailako laugarren postua egin zuen.

Leirek, berriz, 200 m. lau estilo probako (A finala) brontzezko domina eskuratu zuen Absolutu gazte kategorian. Horrez gain, lau estiloko 400 m. probako A finala lehiatu zuen eta 50 m. zein 200 m. bizkar lasterketako B finalean jardun zen.



Ainhoa Martin, podiumean. RFEN

Junior mailako lehiaketan, berriz, Garazi Etxeberria bi proba egin zituen: 50 m. eta 100 m. librean.

Marka ondu

Lehenean, akats tekniko batzuk medio, ez zuen marka ontzerik izan. 100 m. libreko saioan kendu zuen arantza, ordea. Bere marka pertsonala 1.00,87an utzi zuen eta 14. postuan izan zen bere adinean, 50 librea lortutako sailkapena nabarmen hobetuz.

Buruntzaldea IKTko prestatzaileak pozik daude Etxeberria txapelketan lortutako emaitzekin, baita egin duen ikasturtearekin: "Aurten bigarren aldiz Espainiako Txapelketa batean izan da Garazi. Oso garrantzitsua izan da egin duen

bidea eta aldaketa. Gutxieneoak behin eta berriro egiteko gaitasuna erakutsi du eta aurrera begira horrek duen balioa momentuko ematzetik haratago doala uste dugu".

Getaria-Zarautz proba

Hilaren 24an, berriz, 50. Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia jokatu zen. 2.700 bat igerilarik parte hartu zuten proban eta lasarteoriarrak ere izan ziren lehian.

2.850 metroko ibilbidea egin eta helmuga zeharkatzen lehen herritarrek Irati Arzallus (43.13) eta Andoni Illarreta (45.03) izan ziren. Arzallus emakumeen mailan zazpigarren sailkatu zen.

Izen ematea, irekita

Bestalde, Buruntzaldea IKTko arduradunek gogoratu dute kirol elkartearen izen ematea irekia dagoela.

2015 urtean edo lehenago jaiotako herritarrek igeri egiten ikasi edo euren trebetasuna gara dezakete kirol elkartearen interesdunek igeriketa elkartearen webgunean egin dezakete inskripzioa.

Entrenamenduak irailaren 19ko astean hasiko dira, master mailak izan ezik. Horiek urriaren 3an hasiko dituzte saioak.

inskripzioa guraso elkarteek bideratuko dituzten loturretatik.

Hezitzaile bila

Bestalde, berrikuntza modura, Eskola Kiroleko saio batzuk -Landaberri ikastolako LH3-LH4 mailak- bazkal ostean eskainiko dira, zehazki, astearte eta ostegunetan, 13:25etik 14:25era.

Saio horiek aurrera eramateko hezitzaile bila dabil Ttakun KE. Interesa duena jar dadila harremanetan elkartearekin: 695 78 53 94 edota eskolakirola@ttakun.eus.

Eskola Kirola egitasmoko izen emate berria izango da irailean

Berrikuntza modura, bazkalostean saio batzuk eskainiko dira; hezitzailea behar da jarduera gidatzeko

Txintxarri

Landaberri zein Burunzpe Guraso Elkarteek eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarlanean garatzen duten Eskola Kirola egitasmoko 2022-2023 ikasturtea urriaren 3an hasiko den arren, antolatzaileak gai teknikoak eta

programazioa zehazten ari dira dagoeneko.

Izen emate nagusia ekainean egin zuten guraso elkarteek. Alabaina, oraindik zalantzi dauden haurrek irailean aukera berri bat izango dute. Irailaren 19tik 25era egin ahalko da

Herritarrek Lesakako Rallysprintean lehian izan dira

Mikel eta Ekaitz Kortajarena anaiak 2. mailako eta A klaseko bigarren postuan sailkatu dira

Txintxarri

Lesakako Rallysprinta lehiatu zen hilaren 23an. Nafarroako Txapelketako proban 84 ibilgailu batu ziren eta lasarteoriarrak izan ziren maila ezberdinetan parte hartzen.

Mikel eta Ekaitz Kortajarena anaiak 2 mailan A klasean jardun ziren euren Citroen Saxoarekin; Alejandro Lopez eta Aitor Manso, berriz, BMW 316 batekin FL klasean izan ziren lehian.

Lesaka eta Endara-San Anton urtegiaren arteko 9,3 kilometroko lau alditan egin zituzten parte hartzaileek. Bitan Lesakatik Endarara eta beste bitan Endaratik Lesakara.

Kortajarena anaiek osatutako bikoteak, guztira, 27.51,300ko denbora metatu zuen eta

sailkapen orokorreko 22. postuan amaitu zuten. Alabaina, 2 mailan zein A klasean bigarren sailkatuak izan ziren.

FL klaseko lehian, Alejandro Lopez eta Aitor Manso bikoteak 28.11,100eko marka metatua egin zuten.

Goilurak Rallya

Lasterketa hori baino lehen, hilaren hasieran Azkoitiko Goilurak Rallyan parte hartu zuten Kortajarena anaiek.

Azkoitiko proban 2. mailan R klasean lehiatu ziren, eta hamar eremu ezberdinei aurre egin zioten. Guztien denborak batuz, 01.26.22,098ko marka lortu zuten; 2. mailako seigarren eta R klaseko bederatzigarren sailkatu ziren.

Tourreko lehen bi sariak 'XI' izena duten txartelek eskuratu dituzte

Sariak irailean banatuko ditu Ostadar SKTk. Espainiako Itzuliko porra, berriz, abuztuaren 20ra arte egin ahalko da

Txintxarri

Frantziako Tourra amaitu da eta Ostadar SKTk porrako irabazleak jakitera eman ditu.

Lehen bi sariak XI izeneko txartelek eskuratu dituzte. *Itxemi, Kas, Magik Jonson, Moriarty, Kaxkox* eta *Saky 2* txartelek, berriz, urdaiazpiko goxoak jasoko dituzte.

Puntu gehien lortu dituen denda Patxi Larrañaga harategia izan da. Horregatik, sari guztiak irailaren 2an, 19:00etan,

harategian bertan banatuko ditu kirol elkarteak.

Espainiako Itzulia

Eta lau itzulietako azken porra, Espainiako Itzuliarena izango da. Abuztuaren 19an hasiko da proba Utrech-en, Herbehereetan, eta txartelak egiteko epea abuztuaren 16an irekiko dela jakitera eman dute Ostadar SKTk kideek. Ohiko taberna eta dendetan zein webgunean egin ahalko dira abuztuaren 20ko 13:00ak arte.

Kirol instalakuntzak abuztuaren 8ra arte itxita daude

Lasarte-Oriako Udal kirol instalakuntzak -Maialen Chourraut kiroldegia eta Michelin kirol gunea- itxita daude. Hilaren 24an urteroko mantentze eta garbiketa lan teknikoak hasi zituen Kirol

Zerbitzuak eta abuztuaren 8ra arte erabiltzaileek ezingo dituzte kirol eremu horiek erabili. Bien bitartean, Buruntzaldeko gainerako kirol guneak erabilgarri izango dituzte bazkideek.

Lanak amaitzean udako ordutegia mantenduko dela gogorarazi du Udal Kirol Zerbitzuak.


ZORION AGURRAK




Nerea
Santa Ana eguneko izanagatik, libratuko zinela uste zenuen? Ez, ez gara ahaztu. Zorionak Ttakuneko lankideen partetik.



Haritz
Zorionak Haritz etxeko guztien partetik! Muxu erraldoiak!



Ricardo
Zorionak Ricardo zure 80. urtebetetzean, maitasun eta miresmen handiz, pertsona eta eskultore gisa erakusten duzun gizatasun eta ibilbide estetikoagatik. Zure emazte Juliaren partez.



Ekhi
Gure eguzkitxoak 7 urte bete ditu! Gorputza handitzen-handitzen baina bihotza handi-handia duzu jada! Jarraitu zaren bezain jatorra eta alai zaiten! Infinitu maite zaitugu! Nahia, Aita eta Amatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitaratekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.




Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 29




Larunbata, 30




Igandea, 31




Astelehena, 1




Astearte, 2



Asteazkena, 3



Osteguna, 4



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

4	7	2						9
6	5	3						
	1				7	6		
7				6		9		3
	9				1		6	
			5			2		4
			4		5			1
	8						9	
				3			2	

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29 DE ORUE EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 30 ACHA-ORBEA DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 31 ACHA-ORBEA ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 1 DE MIGUEL DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 2 ACHA-ORBEA LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 3 URBISTONDO GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 4 ACHA-ORBEA URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRA

Madrilera bidaia

Biyak Bat erretiratuen elkarteko kideek Madrilera bidaia antolatu dute urriaren 17tik 21era.

Txangoaren barne daude, besteak beste, Reina Sofia museorako sarrera, Almudenako katedrala edo Austrien Madrilera bisita. *El Rey Leon* musikaleria joateko sarrerak ere aukerazkoak dituzte bidaiariak.

Prezioari dagokionez, bazkideek 565 euro ordainduko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 610 euro. Banako logela nahi duenak 150 euro gehiago gehitu beharko ditu preziora.

Irteeran izen emateko epea uztailearen 26an irekiko du elkarteak. Inskripzioa Biyak Baten egoitzeko bulegoan egingo da astearte eta ostegunetan, 10:30etik 12:30era.

Bide batez, jakinarazi dute datorren ikasturteko jardueretan parte hartzeko izen ematea egin daitekeela dagoeneko, eta egoitza abuztuaren 16tik 31ra (biak barne) itxita egongo dela.

txintxarri

Hurrengo TXINTXARRI paperean
irailaren 8an (osteguna) argitaratuko dugu

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukakutuko genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut abuztu, irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zerbakia, 677 35 18 35 (Lourdes)
Etxebizitza bat alokatzen dugu Basaundi bailaran. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoi handi bat ditu. Harremanetarako zerbakia, 678 37 40 72 (Joxe Mari).

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro karratuden lorategia du, bista paregabeak, baita

igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zerbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zerbakia: 666 32 05 20.

LANA

ESKAINZA

Irailean irekiko dugun taberna baterako sukaldari bila gabiltza. Interesa baduzu idatzi hona: arimataldeas@gmail.com.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zerbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago.

Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zerbakia: 627 20 61 10.

Umeak zaindiko nituzke. Harremanetarako zerbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko.

Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41.
Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest nago. Interna, orduka baita asteburuetan ere. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

zerbakia: 632 14 84 61 edo 606 66 10 48.

Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zerbakia: 618 81 43 63.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere. Harremanetarako zerbakia: 627 20 61 10.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketean... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketean. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikasketak egiten ari den edota amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa garaian eskola extrak interesatuek honako errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez.

Harremanetarako zerbakia, 688 65 56 93.

Udan haurrak zaintzeko edo errefortzu eskolak emateko prest dagoen gazte euskaldun bat naiz. Lehen Hezkuntzan eta Pedagogian graduatua eta 2-12 urteko haurrekin esperientziaduna, irakasle zein aisialdiko hezitzaile modura. Harremanetarako zerbakia, 634 21 43 61.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marraketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zerbakia, 697 45 97 96.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzailak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Jose Lanchas eta Iñigo
Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/37
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Antzerkia
Ganso&Cia taldeak *Panoli kabareta* antzeztuko du.
Okendo plaza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Kultur Kale
Kultur Kale Zikloaren barruan, Psicoacoustic herriko musika taldeak emanaldia eskainiko du.
Oriako parkea, 20:00etan.

ZUBIETA San Inazio festak
Umeen egunerako honako egitaraua iragarri dute:

10:00etan, jolasen hasiera.

12:30etan, marrazketa saioa.

14:00etan, umeen bazkaria. Bakoitzak berea eraman behar du eta jai batzordeak jarriko du postrea eta sorpresa.

16:00etan, jolasen jarraipena. Ondoren, txokolatada eta buruhandiak. Bukatzeko diskofesta.

Zubieta, 10:00etatik aurrera.

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Basaundiko jaiak

08:00etan, Compack Sporting Arkaleko instalazioetan, Oiarzunen.

13:00etan, txalaparta.

14:00etan, paella jan herrikoia Basaundiko plazan. Bazkarira joan ahal izateko txartelak Oriatxiki tabernan daude salgai.

16:00etan, mus txapelketa.

17:00etan, buruhandiak Basaundiko plazan eta inguruan.

17:30etan, apar festa tenis pistan.



LASARTE-ORIA Kultur Kale Zikloa Ostiral honetan, uztailak 29 abiatuko da aurtengo Kultur Kale Zikloa, eta hiru kontzertuz gozatzeko aukera izango dute lasarteoriarrek. Askotariko estiloetako emanaldiak iragarri dituzte antolatzaileek. Psicoacoustic izango da agertokira irtengo den lehen taldea; Oriako parkean joko du. Filipe Court Duo-ren txanda izango da gero. Uztailaren 30ean joko du, oraingoan, Atsobakar auzoan. Sweet Sara Band izango da hirugarren eta azken taldea. Uztailaren 31ean eskainiko du emanaldia, Tximistarreta parkean.

Lasarte-Oria, uztailaren 29an, 30ean eta 31n, 20:00etan.

18:30etan, zunba master class eta jumping Saito gimnasioarekin eskutik.

19:30etan, Oraintxe In Deu txaranga auzoko plazan eta inguruan.

23:00etan, berbena Ibai Berriak taldearekin auzoko plazan.

LASARTE-ORIA Kultur Kale
Kultur Kale Zikloaren barruan, Filipe Court Duo musika taldeak emanaldia eskainiko du.
Atsobakar, 20:00etan.

ZUBIETA San Inazio festak
Gaupasa egunerako honako egitaraua iragarri dute:

12:00etan, sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote plazan. Jarraian IV. puntu txapelketa.

16:30etan, mus txapelketa. Ordu erdi lehenango egingo da bertan parte hartzeko izen ematea (16:00etan).

18:00etan, herriko gaztetxoan Joko Garbi erakustaldia, Errebote plazan. Ondoren buruhandiak ibiliko dira gaztetxoan harrapatu nahian.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

'Minions: el origen de Gru'

Ostirala: 15:45, 16:40, 18:10, 19:05.
Larunbata: 12:00, 15:45, 16:40, 18:10, 19:05.
Igandea: 12:10, 15:45, 16:40, 18:10, 19:05.

'Jurassic World: Dominion'

Ostirala: 21:25.
Larunbata: 21:25.
Igandea: 21:25.

'DC Liga de Supermascotas'

Ostirala: 15:45, 16:45, 18:25, 19:25, 21:05.
Larunbata: 12:00, 15:45, 16:45, 18:25, 19:25, 21:05.
Igandea: 12:00, 15:45, 16:45, 18:25, 19:25, 21:05.

'La memoria de un asesino'

Ostirala: 20:25, 22:00.
Larunbata: 12:15, 20:25, 22:00.
Igandea: 12:15, 20:25, 22:00.

'Padre no hay más que uno 3'

Ostirala: 16:00, 17:00, 18:30, 19:30, 21:00.
Larunbata: 12:05, 16:00, 17:00, 18:30, 19:30, 21:00.
Igandea: 12:05, 16:00, 17:00, 18:30, 19:30, 21:00.

'Thor: love and thunder'

Ostirala: 16:05, 18:55, 21:45.
Larunbata: 12:15, 16:05, 18:55, 21:45.

Igandea: 12:15, 16:05, 18:55, 21:45.

'Un novio para mi mujer'

Ostirala: 22:05.
Larunbata: 12:20, 22:05.
Igandea: 12:20, 22:05.

'Top gun: meverick'

Larunbata: 12:00.
Igandea: 12:00.

00:00etan, kontzertuak: Skasti, Gozategi eta DJ Nemux.
Zubieta, 12:00etatik aurrera.

IGANDEA 31

LASARTE-ORIA Basaundiko jaiak

09:00etan, Martxa erregulatua. auzoko plazatik abiatuko da.

10:30etan, Diana txistulariekin.

11:00etan, haur jolasak auzoko plazan.

12:00etan, buruhandiak auzoko plazan eta inguruan.

12:00etan, Meza Nagusia Karmengo kaperan.

12:30etan, bote eta toka txapelketa auzoko plazan.

14:30etan, bazkaria bazkideentzat Burutz-azpi elkartearen.

17:00etan, gaztelu puzgarriak auzoko plazan.

17:30etan, haurrentzako askaria.

18:00etan, patata tortila lehiaketa auzoko plazan.

18:30etan, luntxa eta tortila dastaketa.
19:30etan, jaien amaiera Makulu Ken taldearekin.

LASARTE-ORIA Kultur Kale
Kultur Kale Zikloaren barruan, Sweet Sara Band musika taldeak emanaldia eskainiko du.
Tximistarreta parkea, 20:00etan.

ZUBIETA San Inazio festak
San Inazio egunerako honako egitaraua iragarri dute:

09:00etan, zikiro prestaketaren hasiera.

10:00etan, meza.

11:30etan, zubietarren arteko errebote partida.

14:00etan, zikiro jatea.

18:30etan, herri kirolak: pentatloian Aratz Mugertza eta Xabier Zaldua.

Ondoren, buruhandiak.

23:00etan, herriko jaien amaiera traka eta suzirikin.

Zubieta, 09:00etatik aurrera.

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

Oporretara goaz!

Hurrengo TXINTXARRI aldizkaria irailaren 8an kaleratuko dugu.
Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:

txintxarri@ttakun.eus • 688 68 35 10 



txintxarri

txintxarri

**UDA KO
ARGAZKI LEHIAKETA**

**Bidali zure argazkia
irailaren 12ra arte (12a barne)
• 646 82 44 66 (whatsapp)
• txintxarri@ttakun.eus**

Argazkia: Jose Manuel Bernardo (iazko irabazlea)

SARIA **aldika**  produktu bereziak